

**2010EKO MARTXOAREN 26KO UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita seia

HILABETEA: Martxo

URTEA: Bi mila eta hamar.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Ana María Crespo Blanco
- Manuela Uranga Segurola
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA:

- Malu Valles Fernandez
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2010eko otsailaren 26an, egindako ohiko batzaraldiaren aktaren berri eman ondoren, Julio Herreros jaunak adierazi bera ez dagoela ados bileran parte hartu zuelako legez kanpo dagoen alderdiak.

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

2.- ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. Iradokizunak ebatzea, irizpide eta helburuak onartzea eta hasierako onspena ematea, landa eremua sartzeko oinezkoen bide sareari buruz.

Alkatea jaunak Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeburuari hitza eman dio eta honek ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa landa eremua sartzeko oinezkoen bide sareari buruzko irizpide eta helburuak zehaztea eta hasierako onspena ematea.

AURREKARIAK

I.- Ekainaren 30eko 2/2006 Zoru eta Hirigintzaren Legearen 90. artikulua arabera, landa eremua sartzeko oinezkoen bide sareari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketarekiko Aurrerakina bi hilabeteko epean jendaurrean jarri zen, GAON, Diario Vascon eta Berrrian 2009ko uztailaren 23, 17 eta 14an hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz, alegazio eta iradokizunak aurkezteko.

II.- Halaber, Beasaingo udalerriarekin muga egiten dituen, Azpeitia, Beizama, Bidegoian, Ezkio-Itsaso, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Olaberria, Ordizia eta Ormaiztegiko udaletxeetara ere Aurrerakina bidali zen ezagutu ahal izateko.

Aipatutako Aurrerakinari buruz, txostena eskatu zen, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritzari eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunea garatzeko departamentuari, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari eta Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuei.

III.- Alegazio eta iradokizunak aurkezteko epean lau aurkeztu dira, hain zuzen ere, hauek sinatutakoak:

- 1.- Julian Elorza Urkia y Jon Agirre Ugartemendia.
- 2.- Jesús M^a Dorronsoro Odriozola.
- 3.- Jose Joaquin Leunda Mugica.
- 4.- Teresa Zaldua Mendizábal.

IV.- Informazio eskaerari ondorengoek erantzun dute:

- Azpeitiko Udalak adieraziz ez dagoela inolako eragozpenik.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak dio gaur egun Sail horretan ezagutzen diren kultur ondareko elementuak agirian jasota daudela.
- Herrizaingo Sailak, teknikoek egindako txostena igorri dute.
- Ingurumen, Lurralde, Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak igortzen du Mendietako eta natura Unguruneke Zuzendaritza Nagusiaren eta Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako zerbitzu teknikoek emandako txostena nahiz Ingurugiro Inpaktuari buruzko erreferentzia-dokumentua.

V.- Ingurumen Ganeko Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren Azterlanari buruz, Ingurumen Sailburuordetzak emandako Ebazpenaren edukiari dokumentua egokitu ondoren, beharrezkoa den alde aurreko txostena eskatu zen. Honen berri 2010eko otsailaren 9an izan dugu eta ondorengo adierazten du:

- *Aldaketak argi adierazi behar du bere helburuak zeintzuk diren, bereziki ingurumenarekin loturikoak eta baita nola eta zein neurritan kontuan hartu diren erreferentziazko dokumentuaren 2.4. atalean aipatutako irizpideak.*
- *IEEBren azterlanak, o aukera barne, ingurumen-azterketari dagokion atala jaso beharko du. Gogoan hartzen diren aukerak zehaztu eta aztertu beharko dira eta beren analisia egiteko erabilitako ingurumen-helburuak deskribatu ere bai. Era berean, hartutako soluzioa eta gainontzeko aukerak baztertzearen arrazoa justifikatu beharko dira.*
- *IEEBren azterlana, txosten honetako 4.2., 4.3 y 4.4 ataletan jasotzen diren argibideei jarraiki aldatu beharko da.*

VI.- 2010eko martxoaren 4an, ondorengo txostena eman da, aurkeztutako iradokizunei buruz:

“1.ZENBAKIA: Juan Elorza Urkia eta Jon Aguirre Ugartemendia.

Titularrak Loinaz auzoko Beatxurreta eta Aguerre baserrien jabeak dira. Hori dela eta, zenbait arazo planteatu dituzte: erabilera publikoak kalteak eragingo ditu nekazaritza eta abeltzaintzako jardueretan, sailen segurtasunean eta erabilera publikoaren (oinezkoak) eta ibilgailuak ibiltzeko aukeraren arteko bateragarritasunean (beharrezkoa jarduera horietan).

- *Txosten teknikoa.*

Iriztiak behar bezala arrazoitu dituztenez, iradokizuna aintzat hartzea eta gune horretarako proposatutako oinezkoen sarearen ibilbidea aldatzea proposatuko dugu. Dagoeneko hor dagoen tarte publikoan ibilbidea mantenduko dugu eta +225 kotan (Usurbe-Beasainmendiko hegala) kokatuta dagoen ibilbidearekin lotura berria proposatuko dugu, Aguerre Aundi eta Agerrezabal baserrien arteko bidegurutzetik bi mailak lotzen dituen ibilbide zaharraren bidez.

Beraz puntu hori eta Loinatzako San Martin Baselizaren gunetik gertu aurreikusitako loturaren arteko oinezkoentzako ibilbidea, Beatxurreta baserrian barrena zihoana, ezabatu egingo da.”

“2. eta 4. ZENBAKIAK: Jose Joaquin Leunda Mugica eta Teresa Zaldua Mendizabal

Bi idatzietan Arizmendi/Eizmendi baserriaren gunerako proposatutako oinezkoen bideen sarearen ibilbidea aipatzen dute, Alkartasuna Lizeoaren, Fleming auzoaren, Erauskin auzorako errepidearen eta Loinaz auzora sartzeko bidearen artekoa.

Loinaztik Erauskineko errepiderako lotura ibilbide zaharraren bidez egitea eta Egia, Echeburua eta Barrutia lursailak sartzeko egin zuten bide partikularra ekiditea proposatu dute.

- Txosten teknikoa.

Gure ustez, zentzuzkoa da aipatutako bide partikularra ekiditea, eta Loinaztik datorren ibilbidea Erauskin-Usurbe-Murumendirako "ibilbidearekin" lotzea. Horretarako, Bordaberri baserriaren ondotik doan bide zaharra erabiliko da Basarte Goikoa baserrira sartzeko bideraino eta Erauskineko errepideraino.”

“3. ZENBAKIA: Jesus Mari Dorronsoro Odriozola

Aurreko kasuan bezalaxe, oraingoan ere titularra ez dago ados gune horretan proposatutako oinezkoen bideen ibilbidearekin; gainera, aurretik ere behin eta berriro emandako irtenbideen kontrako jarrera agertu zuela adierazi du, eta zenbait alegazio aurkeztu zizkiola Udalari (05/06/05 eta 06/06/15) beste aukera batzuk proposatzeko.

Egindako proposamenak berraztertzea eskatu du.

- Txosten teknikoa.

Aurreko kasuan esan bezala, egoki deritzogu Loinaztik Erauskineko errepiderako zatia ezabatzeari, eta haren orde, aipatutako ibilbidea erabiltzeari.

Hala ere, Loinazko bidea eta Alkartasuna Lizeoa Fleming auzo berriarekin lotzen dituen bidea (zati hori hiri lurzoruan kokatuta dago eta ez du eraginik landa eremuan) mantentzea egokia dela uste dugu, nahiz eta beharrezkoa den diseinuan aldaketak egitea eta 15204 eta 15099 lursailen arteko ertzerak mugitzea, diseinu hobea lortzeko (malda murriztea) eta 15204 lursailari kalte txikiagoa eragiteko (egungo eskemak zatitu egiten du).”

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egiten dio (apirilaren 2ko 7/1985, Legearen 22,2c) artikulua ematen dio eskuduntza Udalbatza Osoari eta onartzeko gehiengo absolutua behar da, Lege horretako 47,3i) artikulua arabera):

Lehenik. Landa eremua sartzeko oinezkoen bide sareari buruzko Areako Arau Subsidiarioen aldaketaren Aurrerakinean ezarritako irizpide eta helburuak onartzea, Ingurugiro Inpaktuaren alde aurreko txostena emateari buruzko 2010eko urtarrilaren 29ko Ingurumen Sailburuordetzaren Ebazpenean ezartzen diren baldintzak nahiz aurkeztutako iradokizunak jasoz.

Bigarren. Landa eremua sartzeko oinezkoen bide sareari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketarekiko dokumentuari hasierako onespina ematea Ingurugiro Inpaktuaren alde aurreko txostena emateari buruzko 2010eko urtarrilaren 29ko Ingurumen Sailburuordetzaren Ebazpenean ezartzen diren baldintzekin eta aurkeztutako iradokizun guztiekin. Dokumentua jendaurrean jartzea, GAO, Diario Vascon eta Berria azken iragarkia argitaratzen denetik hilabeteko epean, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarren. Dokumentua, Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, Gipuzkoako errepide eta bideen azaroaren 25eko 17/1994 Foru Arauaren 94. artikulua aipatzen duen txostena emateko eskatuz.

Laugarren. Ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7k) artikulua adierazten duen txostena emateko eskatuz, Uraren Ur Agentziari ere dokumentua igortzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

3.- SAN MARTIN PLAZAN, BEHEAN, OSTALARITZA JARDUERA USTIATZEKO DEIALDIA. Baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Alkatea jaunak Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeburuari hitza eman dio eta honek ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Ostalaritza jarduera ustiatzeko, alde aurretik jarduera garatu behar den lokala egokitzeari buruzko, esleipena egiteko baldintza plegua eta bestelako dokumentazio grafikoa aztertu ondoren,

Hirigintza batzordeak, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Ostalaritza jarduera ustiatzeko, aldez aurretik jarduera garatu behar den lokala egokitzeari buruzko jarraian transkribatzen den baldintza plegua eta bestelako dokumentazio grafikoa onartzea.

Bigarren. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean nahiz kontratistatzailearen profilean deialdi publikoa egitea, eskaintzak aurkeztu daitezen.”

OSTALARITZAKO JARDUERA BATEN USTIAPENA ESLEITZEKO OINARRIAK, ALDEZ AURRETIK LOKALA GAITUTA, JARDUERA HORI BURUTU AHAL IZATEKO.

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1.- ARRAZOIEN AZALPENA ETA IZAERA JURIDIKOA

San Martin plazan egiten ari diren birgaitze-lanak direla eta, azpialde osoan eremu berri bat sortu da, hain zuzen ere, lehenago egunkarien eta aldizkarien kioskoa aurkitzen zen tokian. Udalak lokal horretan ostalaritza-jarduera bat zabaltzeko borondatea du, elikaduraren sektorearekin loturik egongo litzatekeena, eta establezimendu horren babesean, halaber, plaza hori aisialdirako eta topaketarako eremu izan dadila bultzatu nahi du, aisialdiko, jai-giroko eta beste era bateko ekitaldiak egiteko aukera edukitzeak jendea erakarriko bailuke bertara.

Prozedura honen helburua ez da, beraz, udal ondasun bati etekin ekonomiko bat ateratzea, baizik eta hiriaren erdialdean eremu dinamiko bat sortzea, hirugarren sektorea indartuz eta, aldi berean, udalerrian enplegua sustatuz, eta hain zuzen ere horrexegatik, egiten den kontratuak Administrazio Kontratu Bereziaren kategoria edukiko du, Sektore Publikoaren Kontratuen Legean aurreikusi bezala.

2.- HELBURUA

Prozedura honen helburua, horrenbestez, ostalaritzako jarduera baten ustiapena esleitzea da, baina horren ardura duenak, aldez aurretik, gaitu egin beharko du lokala, aipatutako jarduera hori bertan burutu ahal izateko.

3.- HAUTATZEKO PROZEDURA

Prozedura irekia publizitatearekin.

4.- INBERTSIOAREN GUTXIENEN PREZIOA

Inbertsioaren gutxieneko prezioa 60.000 €koa izango dela ezartzen da, eta esleipena egin ondoren aurkeztu beharko den proiektu teknikoan justifikatu beharko da hori.

5.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena hamar urtekoa izango da kontratua gauzatzen denetik hasita, eta ez du luzapenik izango.

6.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK:

ESKUBIDEAK:

a- Udalak haren esku utziko du lokala:

Udalak esleipendunaren esku utziko du lokal hori, eta komun publikoetarako eranskin bat izango du lokal horrek, honekin batera doan planoan ageri den moduan; bertan azaltzen dira azalerak eta gelen banaketa.

Komunak erabat ekipatuta eskainiko diren arren, merkataritza-jarduerarako izango den lokal horrek uraren, saneamenduaren, energia elektrikoaren eta telefoniaren hornidurarako hartuneak bakarrik izango ditu, eta kontratistaren kontura izango da zerbitzu horiek eskaintzen dituzten enpresekin kontratua egitea, lokal hori ostalaritzan jarduteko prestatu eta ekipatu behar izateaz gain. Horretarako, jarduera eta obretarako baimen-eskaera aurkeztuko du, horiei dagozkien proiektuekin batera.

Irekiera-baimena erdiesteko, jarduera horren ardura izango duenak jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman izanaren agiria aurkeztuko du.

b- Jardueraren ustiapenaren bidez erdietsitako etekinak jasotzeko eskubidea.

BETEBEHARRAK:

- Jardueraren eta obren baimena eskatzea.
- Lokala prestatzeko eta ekipatzeko egoki diren lanak burutzea.
- Uraren, saneamenduaren, energia elektrikoaren eta telefoniaren hornidura kontratatzea.
- Jarduera ekonomikoen zergan alta ematea, baita Gizarte Segurantzaren ere, dagokion erregimenean.
- Jarduera burutzea, horretarako beharrezkoak diren gastuak ordainduz.
- Komun publikoen garbiketaz, mantentze-lanaz eta kontsumoaren arduratzea, bai lokalaren jarduera-ordutegian eta bai ordutegi horretatik kanpora ere (gutxienezko ordutegia 8:00etatik 22:00etara).
- Eskaintza aurkeztuz bere gain hartzen dituen gainerako betebeharrak betetzea, eta horien artean, errentaren ordaina, hala egokituz gero, Udalak hala onartu baldin baditu.
- Esleipena ezin daiteke eskualdatu, Udalak berariaz baimendu ezean.
- Kontratuaren iraupena amaitu ondoren, lokala Udalaren esku jarriko da haren jabetza eta akzesio guztiekin, eta udal erakundeak ez du inolako kalte-ordainik ordaindu beharko lokalaren balio gehituarengatik.

II.- KONTRATAZIO-PROZEDURA

7.- BALIOESPEN-IRIZPIDEAK

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bidez egingo da publizitatearekin.

Kontratuaren esleipenerako oinarri gisa erabiliko diren eskaintzen balioespen-irizpideak, beren garrantziaren eta emandako puntuazioaren arabera, hauek dira:

Hurrengoak:

- 1. Irizpidea: Burutu beharreko jardueraren inguruko txostena. **0 eta 70 puntu** arteko puntuazioa emango zaio.
- 2. Irizpidea: Hobekuntzak. **0 eta 30 puntu** arteko puntuazioa emango zaio.

1. Irizpidea: Eskaintzaren txostena:

Deialdira aurkeztzen direnek burutu beharreko jardueraren Txosten bat aurkeztuko dute. Txosten horrekin batera, proiektututako obraren deskribapen-planoak joango dira oinarritzko mailan eginak, baita gauzatu beharreko inbertsioari buruzko gutxi gorabeherako aurrekontu bat ere.

2. Irizpidea: Hobekuntzak:

Baldintzen orri hauetako lehenengo oinarrian adierazitakoa kontuan izanik, plazarak izan beharreko askotariko funtzioen eta erabilera aktiboen inguruan udalak duen interesari dagokionez, plazan egin daitezkeen jardueren aniztasunarekin loturik eskaintza bakoitzak dituen balioak puntuatuko dira. Era berean, hobekuntzatzat hartuko dira hurrengoak:

- Lokalari atxikitako komunak ordutegiak zabaltzea eta opor garaian komun horiek itxita ez edukitzea, eta halaber, higiene eta osasun arloko neurriak aurreikustea.
- Udal erakundeari ordaindu beharreko errenta.

8. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute pertsona fisiko eta juridiko guztiek, baldin eta gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa badute, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala ziurtatzen badute eta ez badaude Sektore Publikoaren Kontratuen Legeko 49. artikuluan ezarritako bateraezintasunen batean sartuta.

Lehiaketan parte hartzen dutenek beren kaudimen ekonomiko eta tekniko egiaztatu beharko dute, ondorengo era honetan:

- Finantza-erakunde batek sinatutako kaudimen-aitorpena.
- Ostalaritza-jardueran duen esperientzia egiaztatzea, gutxienez bost urteko antzinatea batez.

Horrez gain, kontuan izanik publikoarekin etengabeko harremanean egon beharreko jarduera bat burutu beharko dela, jarduera horren ardura duenak eta zuzenean zerbitzua eskainiko duenak euskaraz komunikatzeko prestatuta egon behar dute. Administrazioarekin edukiko dituen harremanak gutxienez euskaraz egin beharko ditu, bai ahoz eta bai idatziz ere.

Lehiaketan parte hartzeak berarekin dakar baldintza-orri honetako baldintzak inolako erreparorik gabe onartzea eta Administrazioarekin kontratatze eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela erantzukizunez aitortzea.

9. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedienteak, baita horri atxikitako baldintzen orriak eta dokumentazio tekniko ere, deialdiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arte aztertu ahal izango dira, kontratazio-organismoaren kontratugilearen profilean, eta ondorengo atari informatiko edo **web** gunetik barrena egin ahal izango da horretarako sarbidea: **www.beasain.net**

Proposamenak udal erregistroan aurkeztuko dira 8:30etik 13:30era, **26 egun naturaleko epearen barruan**, aipatutako iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horren azkeneko eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo lanegunean amaituko da.

Proposamenak jasotzeko finkatutako epea baino geroago aurkeztutako proposamenak ez dira onartuko nahiz Postetxera epea amaitu baino lehenago eraman zituztela frogatuta geratu, non eta ez den Kontratazio Organora telex, fax, telegrama edo posta elektronikoki bidez bidaltzen, postaz bidali zen egun berean, eskaintzaren bidalketa-eguna egiaztatzen duen agiria. Iragarkia posta elektronikoki bidez bidaltzen bada, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorreko 80.4 artikuluan horrelakoen baliozkotasunari buruz ezarritakoa beteko da.

Eskaintzaileek hiru gutun-azal (A, B) itxi aurkeztu beharko dituzte, eta horietako bakoitzean, honako inskripzioa agertuko da: **“OSTALARITZAN ARITZEKO JARDUERA BATEN USTIAPIENAREN KONTRATAZIOAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA. ALDEZ AURRETIK LOKALA GAITU BEHARKO DELARIK JARDUERA HORI BURUTU AHAL IZATEKO-**

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta zer izaerarekin egiten duen adierazi beharko da, eta bi gutun-azalak sinatu beharko dira.

Horrez gain, gutun-azal bakoitzean barruko edukia adierazi beharko da, honako azalpen hauen bidez:

1. GUTUN-AZALA: KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

2. GUTUN-AZALA: BURUTU BEHARREKO JARDUERAREN TXOSTENA.

1. GUTUN-AZALAK "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" azpi-titulua izango du eta honako dokumentuak edukiko ditu barruan:

Gutun-azal horren barruan dokumentu hauek jaso beharko dira nahitaez:

a).- Aurkeztutako agirien zerrenda.

b).- Lehiatzailearen edo bere ordezkariaren nortasun-agiri nazionala. Beste pertsona edo erakunde baten ordezkari jardunez gero, aurrekoez gain, ahalorde askietsia.

c).- Lehiatzailea pertsona juridiko bat bada, eraketaren eskritura edo, hala badagokio, aldaketarena, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskalerako zenbakia, baldin eta aplikagarria zaion merkataritzako legeriaren arabera hala eskatzen bada. Eskatzen ez bada, jarduteko gaitasuna eraketa-eskrituraren edo eraketa-agiriaren bitartez, estatutuen edo fundazio-aktaren bitartez egiaztatuko da, eta bertan, jarduera hori arautzen duten arauak agertuko dira, hala egokituz gero dagokion Erregistro ofizialean inskribatuta.

EBko kide ez diren estatuetako gainerako enpresaburu atzerritarrek Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorreko 10. artikuluan aurreikusitako bitartekoen bidez egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna.

Europar Batasunekoak ez diren Estatuetako pertsona fisikoek edo juridikoek, aurkeztu den dokumentazioarekin batera joango den Espainiako Misio Diplomatiko Iraunkorrek egindako txosten baten bitartez, egiaztatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko Estatu horrek, halaber, onartzen duela Administrazioarekin eta SPKLko 3. artikuluan aipatutako erakundeekin, organismoekin edo sektore publikoko entitate parekagarrieekin kontratatzeke lehiaketetan Espainiako enpresek parte har dezaketela, honen antzeko modu batean.

d).- Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeko 49. artikuluan aipatutako kontratatzeke debekuren batean ere sartuta ez dagoela erantzukizun osoz dioen berariazko adierazpena.

e).- Zerga-betebeharrak betetzen egunean aurkitzen dela egiaztatzea, Udal honen zergen ordainketan egunean egotea ere barne, eta halaber, Gizarte Segurantzarenetan, dagozkion erakundeek egindako ziurtagirien bitartez, eta hori ezinezkoa baldin bada, hori dioen erantzukizuneko aitorten batek ordezkatu ditzake, **II. ERANSKIN** gisa doan ereduari jarraiki. Edonola ere, xehetasun horiek esleipena gauzatu aurretik egiaztatu beharko dira.

f).- Lehiatzailearen kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea, 8. baldintzan aurreikusitako moduan, hizkuntz eskakizunari buruzko betebeharrak hori ere barne dela. Azkeneko hori ezin baldin bada egiaztatu inolako titulurik ez edukitzeagatik, Kontratazio Mahaiak erabaki dezake Udal Euskaltegiak ebaluatu ditzala lehiaketa honetako parte-hartzaileak.

h) Atzerriko enpresek, zuzenean edo zeharka kontratuan sor daitezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako maila guztietako auzitegi eta epaitegien erabakiei men egingo dietela dioen adierazpena aurkeztu beharko dute, eta behar izanez gero, eskaintzaileari legokiokkeen atzerriko eskumen-foruari uko egingo diotela adieraziko dute.

Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, berariaz adierazten da lehiatzaileek eskaintako datuak ez direla tratatuko eta ez zaizkiela hirugarrengei lagako, eta halaber, Beasaingo udalak esleipen-prozedura honetarako bakarrik eta horretarako bereziki erabiliko dituela.

2. GUTUN-AZALA: BURUTU BEHARREKO JARDUERARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

Ondorengo dokumentazioa aurkeztuko da:

- Txostena bera.
- Proiektatutako obraren planoak, oinarrizko mailan eginak.
- Gauzatu beharreko inbertsioaren gutxi gorabeherako aurrekontua.
- Hobekuntzak.

9. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Eskuordetzen duen alkatea edo zinegotzia.
- Hirigintza Batzordeko kideak, aparejadorea eta udal arkitektoa ere barruan direla.
- Kontu-hartzailea.
- Udal idazkaria.

10. DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, Kontratazio Mahaiak A gutun-azalaren edukia aztertuko du alde zuzenetik, eta lehiakideek behar den epean eta moduan aurkeztutako dokumentuak kalifikatuko ditu.

Horri begira, lehiatzaileen kaudimen eta gaitasunari buruzko azalpen edo agiri osagarriak eskatu ahal izango dira, eta horiek, Araudiko 22. artikulua xedatzen duen moduan, bost egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira. Azalpen edo informazio osagarriaren eskaera hori ahoz jakinaraziko die Mahaiak interesatuei, eta era berean, Kontratazio Organoaren iragarkien taulan eta kontratugilearen profilean iragarriko da. Mahaiak, era berean, aurkeztutako dokumentazioan egon litezkeen hutsegite zuzengarriak jakinaraziko ditu, kasu honetan hiru eguneko epean lehiatzaileek zuzendu edo konpondu ditzaten atzemandako hutsegite horiek.

Mahaiak, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu eta, hala egokituz gero, atzemandako hutsegiteak edo ez-aipatzeak zuzendu ondoren, baldintzen orri hauetako 7. klausulan erabakitako hautapen-irizpideetara egokitzen diren enpresak zein diren zehaztuko du, eta berariaz aipatuko ditu lehiaketan onartuak izan direnak, baztertuak izan direnak eta horiek baztertuak izateko arrazoiak.

Eskaintzei buruzko ebaluazioa baldintzen orri hauetako 7. klausulan ezarritako esleipen-irizpideak betetz egingo da, eta halaber, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeko 134,2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Eskatutako dokumenturen bat ez aurkezteak edo eskatutakoa ez den modu batean aurkezteak Mahaiak behin betiko ez onartzea eragingo du.

Horretarako, Kontratazio Mahaiak, Kontratugilearen Profilean adierazitako toki, egun eta orduan, eta gehienez ere 1 gutun-azala ireki zenetik zazpigarren lanegunean, ekitaldi publiko batean 2. gutun-azala irekiko du, burutu beharreko jardueraren Txostena horren barruan dagoela, eta bertan jasota dagoen dokumentazioari buruzko balioespena egingo du, egindako guztiaren berri jasoz.

Kontratazio Mahaiak, gero, aurkeztutako proposamenak balioesteko irizpideak aplikatuz lortutako emaitza, Akta, esleipen-proposamenarekin batera eskainitako dokumentazioa eta bidezko iruditzen zaizkion oharak helaraziko dizkio Kontratazio Organoari.

11. ESLEITZEA, GAUZATZEA ETA GASTUAK

Proposamenik onuragarriena aurkeztu duenari kontratua behin-behinekoz esleitzea erabakiko du Kontratazio Organoak.

Behin-behineko esleipena hiru hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Kontratugilearen profilean behin-behineko esleipena argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita hamabost laneguneko epean, behin-behineko esleipendunak ondorengo egintzak burutu beharko ditu:

- a) *Bere zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak bete izana egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztea, non eta ziurtagiri horiek ez dituen proposamenarekin batera aurkeztu, eta halaber, hala egokituz gero, zin egin bezala, kontratua gauzatzeko bere gain hartuko zituen baliabideak benetan badauzkala dioten egiaztariak.*
- b) *Behin betiko bermea jartzea; horren zenbatekoa aurreikusitako inbertsioaren %5aren baliokidea izango da, BEZ kanpo.*

Behin-behineko esleipen hori behin betiko bihurtuko da arestian aipatutako epe hori amaitu eta hurrengo hamar laneguneko epearen barruan, betiere esleipendunak jarduera horiek burutu baldin baditu. Jarduera horiek burutzen ez baldin baditu, ez da behin betiko esleipenik gauzatuko behin-behineko esleipendunaren alde.

Kontratazio Organoak behin betiko esleipena egiten duenean gauzatuko da kontratua, eta hori, esleipendunari jakinaraziko zaio; honek, hamar laneguneko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita, honako jarduera hauek egin ditzan:

- a) *Publizitate ofizialaren gastuak ordainduko ditu, horrelakorik baldin badago, Buletin bakarrean eta aldi bakarrean, eta horren gehieneko zenbatekoa 750€ izango da.*
- b) *Azkenik, Administrazioaren aurrean azaldu beharko du, kontratu hori dokumentu administratibo batean gauzatzera.*

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua gauzatu gabe geratzen baldin bada, Administrazioak hori desegitea erabaki ahal izango du, interesatuari entzun ondoren, kalteak eta galerak ordaindu beharko dituelarik.

12.- LEGE-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

Lege-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Lege-hauste arintzat joko dira:

- *Bere gain hartu beharreko betebeharrak betetzean izandako atzerapenak.*
- *Udalak emandako aginduak ez obeditzea.*
- *Udal zerbitzu teknikoen ikuskaritzaren mende ez jartzea.*
- *Udal baimena ikusgai ez edukitzea.*

Lege-hauste arin bat egiteagatik jaso litekeen zigorra 60 € dira.

Lege-hauste larritzat joko dira:

- *Lokal hori baimendutakoak ez diren jardueretarako xedatzea.*
- *Lokalaren eta bere eranskinen eta, halaber, jarduera garatzeko erabilitako jabari publiko lur-zatiaren balio-galera eragiten duten jarduerak burutzea.*
- *Bezeroekin jokabide zakar eta begirunerik gabekoa agertzea.*
- *Ordutegiak ez betetzea*
- *Bi hutsegite arin egitea.*

Lege-hauste larri bat egiteagatik jaso litekeen zigorra 90 € dira.

Lege-hauste oso larritzat joko dira:

- 7. artikuluan xedatutakoari dagokionez bere gain hartuak zituen betebeharrak ez betetzea, herritar guztiei eragiten dienean.
- Bi hutsegite larri egitea.

Kasu hauetan, zigorra 150 € izango dira, baina berriro eginez gero, Udalak kontratua desegitea erabaki ahal izango du.

13.- KONTRATUA DESEGITEA

Kontratua desegiteko arrazoiak hauek dira:

- Hitzartutako errenta ez ordaintzea, horrela itundu baldin bada.
- Epea igarotzea.
- Kontratistak uko egitea.
- Aurreko klausulan xedatutakoaren arabera zigor hori jartzea.

14. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Administrazioaren eskumena da kontratua interpretatzea, hori betetzean sortzen diren zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, desegin dadila erabakitzea eta horren ondorioak finkatzea, hori guztia SPKLko 195. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Horri begira hartutako erabakiak amaiera emango diote administrazio-bideari eta berehala betearaztekoak izango dira.

III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

15. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-orri hauen arabera egiten den kontratuak administrazio izaera izango du eta, bertan aurreikusten ez diren gauza guztietan, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean xedatutakoa beteko da, baita Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Orokorrean xedatutakoa ere, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onetsia, eta halaber, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua eta, hala egokituz gero, Herri Administrazioen kontratazioetan aplikagarri diren gainerako arauak.

Administrazio Baldintza Berezien Orrien eta espedientearekin batera doan gainontzeko dokumentazio teknikoaren artean kontraesanen bat baldin badago, baldintza orri hauetan idatzitakoa lehenetsiko da.

16. JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratutik ondorioztatzen diren gai liskartsuak administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren pean daudela ulertuko da, baina hala izanik ere, alderdiek erabaki dezakete beren liskarrak arbitraje baten pean jartzea, indarreko legerian ezarritakoarekin bat etorritz.

.....an, 20....(e)koaren(e)an.

I. Eranskina

Jn./And., helbidea
.....an duela, P.K., N.A.N. zk.,
telefonoa, e-maila, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun
osoaren jabe dela, bere izenean (edoren ordezkarik gisa, helbidea
.....an duela, P.K., telefonoa
eta N.A.N. edo I.F.K. (pertsona fisikoa izan ala juridikoa izan) zk., Beasaingo Udalak
deialdi baten bidez egindako prozedura irekiaren berri duela, hain zuzen ere, **OSTALARITZAKO
JARDUERA BATEN USTIAPENA KONTRATATZEKO, ALDEZ AURRETIK LOKALA GAITU BEHARKO
DUELARIK JARDUERA HORI BURUTU AHAL IZATEKO.**

Aitortzen dut:

1.) Hitz ematen dut Administrazio Baldintzen Orrietan deskribatutako jarduera eta kontratu hau
arautu behar duten gainerako agiriak beteko ditudala, eta aitortzen dut horiek ezagutzen ditudala eta
berariaz neure gain hartzen ditudala, eta oso-osorik onartzen ditudala.

3.) Nik ordezkatzen dudan enpresak indarreko araudian eskatutako obligazio eta betebeharrak
guztiak betetzen dituela jarduera hori ireki, instalatu eta funtziona dezan.

.....an, 20....(e)koaren(e)an.

Sinadura

II. Eranskina

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzean egunean aurkitzen dela egiaztatzen duen
erantzukizuneko aitopena.

Jn./And., helbideaan duela, P.K., N.A.N. edo I.F.K.
....., Telefonoa, gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasun osoaren jabe dela,
bere izenean (edo honakoaren ordezkarik gisa)

Jn./And., helbideaan duela, P.K., N.A.N. edo I.F.K.
